

BALEIKE

230. ZENBAKIA. EURO BAT
2014ko MARTXOA

www.baleike.com

ITSASO GORRIA

Denboralez denborale eman dugu negua, bi alarma gorri tartean. Olatu ikaragarriak iritsi dira gure kostara, irudi ikusgarriak utzi dizkigute; baina, zer dakigu olatuez? Joseba Egaña meteorologoak azaldu digu nola sortzen diren eta nondik datozen itsasoko munstro zuriak.



Kalitatezko
produktuak

Gipuzkoako
Okelaren
Ziurtagiria:
GI-OKELA

ZUMAIA
Basadi auzategia, 4.
Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUTZ
Salegi kalea, 14.
Tel./Faxa: 943 890 215

Juanjo Larrañaga harategia



Casa BASUSTA



BALEIKE 230

AZALA G. Zabaleta



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustin Zubimendi eta

Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietak, Izaskun Urbietak eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

azubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Legia gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

14
baleike +

NONDIK ZATOZ, MOBY DICK?

5

BAZKIDEEI GUTUNA

26

erreportajea
PATINATZAILEAK

6

argazkitan
INAUTERIAK

31

ikerketa
EUSKAL KULTURA
ZUMAIAN

9

elkarrizketa
TSko LANGILEAK

38

bertso xorta
JOXEAN GOGOAN

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO





Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel./Faxa: 943 14 31 20
www.a3zumaia.com
a3@a3zumaia.com

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak




LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

Egin zaitez **BALEIKEKO** bazkide



GERRAKO BOST DESAGERTU AURRITU DITUZTE

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

Egin zaitez **BALEIKEKO** bazkide



GERRAKO BOST DESAGERTU AURRITU DITUZTE



ALGORRITABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



ANA
ETXKO ZAPATAK

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 anaetxeokozapatak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA



D'Ana

Kantauri plaza, 6. behea tel. 943 117 408

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com


Erakusketa. Hego kalea, 4-5
Denda. Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA
Arkupe

Nagusia, 2 - tel. 943 501 501
ZUMAIA

OGI-EDER



ARRUTI
Baltasar Etxabe 2/9
Zumaia 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net




Basadi albaitaritzza

Ribaitario
Itaki Garmendia

Basadi, 7. behea - tel. 943 143 310
www.maribelbasadiclinic.com
www.basadiclinicvet.com

Golez: 11-13 / Arrabaldiz: 16-19:30 / Astebeteen goizean eta larunbatean bita
Lanaldietarako: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzua

BASUSTA
ERRETEGIA



Patxita Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073



Braky's
Okindegia Katedegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumala (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

Bazkideen datu berritzea

Urte berezia da 2014a Baleikeko kide, bazkide eta irakurleentzat, aurten aldizkariak 20 urte bete-ko baititu ekainean. Urteurren borobilak aukera emango digu ospatzeko, baina baita ere proiektua bera sendotzeko, zabaltzeko eta berritzeko. Aurre-rago emango ditugu xehetasunak, baina aurrera dezakegu **uztailaren 5ean Baleike Eguna** ospa- tuko dugula. Egun osoko jaia antolatuko dugu, herriko taldeekin elkarlanean. Ekainean ere izango da kultur egitarau berezia.

Horrekin batera, gure eskaintza hobetzeko ari gara lanean. Horretarako, ezinbestekoa zaigu oina- rriak sendotzea. Bazkideak dira elkartaren zutabe garrantzitsuena, eta ezin aukera pasatzen utzi urtea joan eta urtea etorri Baleike babesten duzuen guz- tiori eskerrak eman gabe. Aurten berrikuntzak eta abantailak izango dira bazkideentzat eta bazkide berriak inguratzeko kanpaina egingo dugu.

Baina, lan horiek egin aurretik, dagoeneko bazkide zaretenen **datuak berritzeko premia** daukagu. Urteen poderioz gure datu basea zahar- kituta gelditu da, eta gaur egun ezinbestekoa zaigu datuak osatzea, sistema erabat informatizatu eta garai berrietara egokitze. Zerbitzu egokiagoa eta erosoagoa eskaintzeko modua izango da.

Beraz, Baleikeko bazkideoi eskatzen dizue- gu hemen zehazten diren datuak ahal bezain pronto helaraztea, posta elektronikoko helbide honetara: azubimendi@baleike.com Izenburuan adierazi “Baleike bazkideetza” dela gaia.

Behar ditugu datuak:

IZENA:

ABIZENAK:

ZENBAT ZARETE ETXEAN:

HELBIDEA:

HERRIA:

POSTA KUTXA:

EMAILA:

TELEFONOA:

K/K ZENBAKIA + ERAKUNDEA:

N.A.N.:

Bide batez, norbaitek Baleikeko bazkide egin nahiko balu goian adierazitako datuak bidal ditza- ke aipatuta helbidera elektronikora.

Mila esker zuen babesagatik eta laster jakina- raziko dizkizuegu 20. urteurrenaren harira presta- tzen ari garen proiektu eta ospakizunak.

Xabier Azkue Ibarbia
Baleike Kultur Elkartearen presidentea







zumartian



Inauterietako Argazki Txokoa

Aurten internet bidezko mozorro lehiaketa antolatu du Udalak, Baileike Kultur Elkartearen laguntzarekin. Horretarako, lehenik Alondegian Argazki Txokoa muntatu zen, parte hartu nahi zutenen erretatuak ateratzeko. Ehundik gora lehiakide izan dira, bi kategoriatan banatuta. Internet bidezko bozketako irabazleak ostiralean jakinaraziko dira. Epai-mahaiaren saridunak, Mercury-Caballe bikotea eta Arabiar Gaua taldea izan ziren.



Zumaiko Udala

zumartian

BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurigrunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



EKAIN

SAGARDO EKOLOJIKOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



ERNETO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045



ERROTA

ERROTA
ORIL-OKINDEGIA
SANTILLO AUZOAN, 32
20750 ZUMAILA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
errota@errota-okindegia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatilak
konpontzeko
zerbitzu berria

Eskatu sarekontua
konpromisorik gabe.
DOAN



Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

Galdona



burdindegia

Mendaro mendiola, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte 15 faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



Garoa
kafetegia

Txomin Agirre kaia Tel. 943862181

ZATOZTE

zatozte.bakailaudenda@gmail.com

Juan Belmonte 4 behe 20750 Zumala

TF 943865393

Egin zaitetz
BALEIKEKO
bazkide



GOIKO TABERNA

Erribera, 9 tel. 943 861 391



ARGAZKI ESTUDIOA | ESTUDIO DE FOTOGRAFIA

www.goizargazkiak.com | goizargazkiak@gmail.com
Txomin Agirre kaia, 2 behea

Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

TSKO LANGILEAK

TESTUA ETA ARGAZKIAK: GORKA ZABALET

“PEN DA FAMILIA ARTEKO GATAZKA BATEAN LANGILEEK ORDAIN TZE ONDORIOAK”

ELKARRIZKETA



2008an marka guztiak hautsi zituen TS Fundicione sek: 360 langile zituen eta sei milioi euroko irabaziak lortu zituen. Sei urte baino ez dira pasa eta enpresa likidatzeko bidean jarri dute jabeek; enpresan gelditzen ziren 156 langileak kale gorrian geldituko dira. Xabier Korta, Aritz Larrañaga, Manuel Murillo eta Tomas Anton zumaiarrak dira horietako lau.

Bideoa





Manuel Murillok 30 urte daramatza lanean enpresan. “Torreagan hasi nintzen 17 urte nituela eta orain 47 dauzkat. 30 urte hauetan fundizioko lana besterik ez dut egin. Ez dakit mekanizatzen ere. Nora noa ni orain lan bila? Bi seme-alaba dauzkagu, 14 urteko mutikoa eta seiko neskatoa”. Tomas Antonek itsasoa utzi eta lehorrean lanean hastea erabaki zuen duela 17 urte. “Orain 57 urte dauzkat. Itsasoa egindako urteei esker lan urteak murrizteko koefizientea daukat eta, nola edo hala, moldatuko naiz, baina langile asko daude oso egoera larrian, seme-alaba txikiekien, ordaindu beharreko hipotekekin, eta lana aurkitzeko aukera eskasekin”. Aritz Larrañaga eta Xabier Korta gazteagoak dira. Larrañagak 33 urte dauzka, eta 15 daramatza enpresan. “Seme-alabarik ez daukat, baina hipoteka hileror ordaindu behar da”. Xabier Korta duela hamar bat urte hasi zen lanean, ordurako enpresa TS zelarrik. “Urte onenak ezagutu genituen, 2008a sekulakoa izan zen, eta orain kale gorrian ikusten dugu geure burua. Nik soldeatzen badakit eta bide horretatik joko dut; ea ontziolan lana lortzen dudan”.

“Jaurlaritzak behartu zituen bi enpresak bat egitera, baina hasieratik ez ziren ondo konpondu”

Egoera bertsuan daude TSKo gainerako langileak. Bartzuk, oso larri. “ELA sindikatura etorri zaizkigu lankideak, malkotan, mesedez ea laguntzaren bat ematerik ba ote genuen, dirurik gabe zeudela eta”, azaldu du Tomas Antonek. “Jendea oso estu dago. Borroka oso luzea izan da, urtetik urtera sarrerak murrizten joan dira. Bartzuk gurasoen etxean daude bizitzen. Badaude familiak seme-alabak dituztenak, hipotekak ordaintzeko eta biak langabezian”, gaineratu du Aritz Larrañagak.

Egoera muturrekoa da eta langileak ez daude burua makurtzeko prest. “Enpresa itxi egingo da, baina guk borrokatzen jarraituko dugu. Epaiketara eramango ditugu argitu dadin zein den honen guztiaren erruduna. Ez dira erantzukizunak argitu gabe joango”, aurreratu du Antonek. “Pena da familien arteko botere borrokaren ondorioak langileok ordaintzea”, osatu du Manuel Murillok. Izan ere, langileek garbi dute hori dela enpresa hondoratzea esplikatzeko duen giltza.

Gogoz kontrako ezkontza

TS Fundiciones 1993an sortu zen, Zumaiaiko Torreaga eta Zestoako Sorazu fundizioak bat eginda. Biak oso egoera larrian zeuden, bakarka ez zuten etorkizunik, eta Eusko Jaur-laritzaren diru-laguntzak bultzatuta bat egin zuten. “Jaur-laritzak behartu zituen bat egitera, baina hasieratik ez ziren ondo konpondu”, dio Larrañagak. Behartutako ezkontza izan zen. “Torreagatik zetozen aizpuruatarrek lortu zuten kontrola eta hori sorazutarrei ez zitzaien batere gustatu. Minduta, TSri konpetentzia egingo zion enpresa bat sortu zuten Sorazuk: WEC. Sektore berberean. Lantokiak Itziarren eta Agurainen ireki zituen, krisi bete-betean. Lantokietan sekulako inbertsioa egin zuten, baina urte eta erdi itxita eduki zituen, martxan jarri gabe”. Haizea alde noiz jarri zain gelditu zen Sorazu, langileen ustez.

TS Fundicionesez lantoki berria eraiki zuten Arroa Behean, 2008an, 14 milioi euroko inbertsioa eginda. “Lantoki oso modernoa. 2008an bertan sekula baino gehiago fakturatu zuten enpresak. Sei milioi euroko irabaziak aitortu zituen enpresa zuzendaritzak”. Gero krisi ekonomikoa etorri zen. Lana jaitsi egin zen, baina eusteko moduan zeudela uste dut langileek. “Eolika krisian sartu zen, baina guk lana bageneukan. Arazoa ez da hori izan. Arazo guztien abiapuntua gero etorri zen, 2012an”, dio Xabier Kortak.

Aizpuruatarrek eta sorazutarrek TS kontsolatzeko sorreratik izan duten borroka horretan egoera irauli egin zen 2012an. “Hor badago akziodun talde txiki bat boterea alde batetik bestera pasarazi duena. Aizpuruatar bazuk, orejatarak... Guk haiekin hitz egin dugunean erabakiaren gaineko azalpenak eskatzeko, esan digute anbizio handiko industria plana aurkeztu zela Sorazuk, Europan lehiatzeko helburuarekin. Inbertsioak egingo zirela eta lana ekarriko zuela. Gero demostratuta da dena gezurra zela”. TSren kontrola hartu orduko, enpresa galbidean nahita jarri dutela uste dute langileek. “Guk geneukan lana WECera desbideratzen hasi ziren. TS hustu eta WEC martxan jartzeko momentua ikusi zuten Sorazuk”. Langileek ez daukate zalantzarik: TS ixtea da Sorazuren estrategia. “Aizpuruatarrek paretik kentzeko bide bakarra da TS hondoratu eta ixtea. Hori da aukeratu duten

bidea. TSk zituen bezeroak eta lana WECera eraman eta TS kondematu, aizpuruatarrek paretik kentzeko”.

Dena “iruzur handi bat” izan dela dio Tomas Antonek. “Nik azken urteak bulego teknikoan egin ditut. Bezero gehienekin izan dut harremana, eta badakit gauza arraroak gertatu direla. Esate baterako, bazegoen sinatuta kontratu bat Gipuzkoako enpresa handi batentzat, azkenean TSn ez dena egin. Beste enpresa handi baten deia jaso nuen, ea TSn zer gertatzen zen galdezka. Zuzendaritzak zabaldu zuten langileok ez genuela lan egin nahi, baina hori gezurra da. Arazoa da lan egiteko materialik ere ez duela ekarri enpresak. Ez zuten nahi guk lanik egitea”. Murillok azpimarratu nahi du langileak beti egon direla lan egiteko prest. “Hori behin eta berriro demostratu dugu, kobratu gabe lan egin dugulako. Eta seguru nago enpresa zuzendaritzak negoziatu nahi izan balu akordio batera iritsiko ginatkeela. Langileak prest daude soldata jaisteko,

lan ordu gehiago egiteko. Eskatzen dugun bakarra da lanpostuei eustea, eta ezin bada, gutxienez baldintza duinetan kalera-tzea jendea, eta ez Fogasatik kobratutako 18.000 euroekin”.

Enpresa zuzendaritzak behin eta berriro leporatu die langileei lan hitzarmenak zehazten duen soldatetik oso gora kobratzen dutela eta tematuta daudela 35 orduko lanaldiari eusten. “Zuzendaritzak gezurrak baino ez ditu esan.

Hori ez da horrela. WECen guk baino 4.000 euro gehiago irabazten dute. Soldatak 2007tik izoztuta dauzkagu. Bere garaian eskatu zitzaigun zuzendaritzatik neurri hori hartzea, enpresari laguntzeko. Urtetik urtera gure egoera kaskartzen joan da. Lan etenaldiak izan ditugu, langileak kaleratu dira, eta hala ere lanean segitzeko prest egon gara beti. WECentzat zegoen eskaera bat ere egin genuen 2013ko ekainean, larunbat eta igandeetan lanera joanda. Ez dakigu TSk kobratu duen ere. Behin eta berriro eskatu diegu azken urteotan bezeroei fakturatutakoa erakusteko, baina informazioa ukatzen digute”.

TS ixteko bidean jarri duen azken aurreko urratsa 2013ko abenduaren 10ean eman zuten zuzendaritzak. “Enpresak zordunen konkurtoa aurkeztu zuten abenduaren 10ean, eta hilabetera epaileak onartu. Baina enpresa ez da hor gelditu”, diote langileek. “Konkurtoa enpresa ixteko lehen urratsa zela



Manuel Murillo, Tomas Anton, Xabier Kortak eta Aritz Larrañaga.

“Sorazuk enpresaren kontrola hartu duenean TSko lana berea den WEC enpresara desbideratu du”

Egin zaituzte
BALEIKEKO
bazkide

Cure-Txokoa
aberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaiak
Tel.: 943 86 09 70

English School
Harvest

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

API
ibai gain
inmobiliaria

Ricardo Azkue
API 399

Txomin Agirre 4, beheak
tel. 943 862 651
faxa 943862748

rjzcue@euskalnet.net

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

IRUITZ

Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIAK

Angelos Soratu, 2
20750 ZUMAI (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa 943 430 637

Itzurun, S.L.
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armaru enpokatutak...

Itzurun Zuhaitzibidea, 2 beheak
Tel. / Fax: 943 86 15 65

ORRAZTEGI ZUMAI

943 862 083

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

Zaia

Pintxoak eta otartekoak

Txomin Agirre Kala, 8

KABI Pakete Eteazarrata, 15
943 117 427

TABERNA

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZH-rekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

kalari

PAPER diseinu grafikoak

Roberto Gutierrez

696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org

Kresala
Taberna

Julio beobide 3, tel. 943 019 869



pentsatu genuen eta, zoritxarrez, susmoa bete egin da. Ustez, bi aldeek negoziatzeko bide bat zabaltzen zuen konkurtsoak, baina segituan ikusi genituen zuzendaritzaren asmoak. Lehen bileran esan ziguten gurekin akordio batera iristeak ez zuela ezer bermatzen, banketxeen esku zeudela eta oso zail ikusten zutela haiekin akordioa lortzea. Eta ea guk zer proposatzen genien”. Bigarren bileran, ez zen negoziatzeko aukerarik izan. “Bigarren bilerarako eguna jarri genuen, baina enpresak komunikatu zigun likidaziora joko zuela. Ez zegoen negoziatzeko aukerarik”.

Neurtutako estrategia

Langileek uste dute estrategia oso ondo neurtuta daukala zuzendaritzak. Aurrena enpresa itxi eta ondoren beste izen batekin zabalduko duten susmoa daukate. “Informazioa iritsi zaigu, norabide horretan mugimenduak daudela adierazten dutenak. Urrats bakoitza oso ondo neurtuta daukate, horretarako dute abokatu kabinete baten laguntza. Enpresa itxi, aizputuatarrak eta langileak paretik kendu, eta ondoren beste

“Epaiketara eramango ditugu, jakin dadila nor den benetako erantzulea”

izen batekin irekitzea ez litzateke harrizkoa izango. Denborak esango du arrazoi dugun edo ez”.

Merkatuaren kontrola lortzeko estrategia omen da. “Lan merkatuaren gainbehera aipatzen dute behin eta berriro jabeek, baina hori ez da egia. WECen lana dago bi lantokietan, orduak ari dira sartzen eta jendea hartzen. Sakanan dagoen kooperatiba batean ere galdetu dugu eta esan digute lantoki berri bat zabaltzekoak direla, 10.000 metro koadrokoa. Lana badago. Bezero askok TSrekin jarraitu nahiko luketela ere badakigu, haiek zuzenean esanda, baina jabeak ez badu negozioarekin jarraitu nahi, ez dago zer eginik”.

Enpresa eta lanpostuak galdutzat ematen dituzte, baina ez daude burua makurtzeko prest. “Guk orain ez daukagu beste zeregin hoberik eta borrokan jarraituko dugu”, dio Xabier Kortak. “Hauek enpresa likidatu eta gauzak horrela bukatuko direla uste badute, oker daude. Epaiketara eramango ditugu. Argitu dadila nor den erruduna. Zer egin duten enpresarekin. Langileak terrorizatzen jo gaituzte. Jakin dadila nor den benetako erantzulea”, bukatu du Antonek. ■

NONDIK ZATOZ,



TESTUA ETA ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

MOBY DICK?

BALEIKE +

Aurtengo neguan oldartuta dabil itsasoa. Gabonen bueltatik, ia etenik gabe kolpatu dute kostaldea olatu bortitzek eta hainbat txikizio eragin. Baina nola sortzen dira olatu handi horiek? Euskalmeteko meteorologo Joseba Egañak eman dizkigu erantzunak.

Argazkiak
urtarrilak 7







Argazkiak
urtarrilak 28



Hezur-haragizko balea zuririk ez da bistaratu paraje hauetan oso aspaldian, baina itsasoaren apar zuriak bi hilabete daramatza Moby Dick zaurituaren amorruaz bazterrak kolpatzen. Urtarrileko lehen egunetan izan ziren lehen oldarraldiak eta martxo hasieran etorri da azken denboralea. Hamar bat izan dira, otsailaren 2koa bortitzena. Egin dituzte txikizioak, barra aurrealdean, batik bat; eragin dituzte istripuak eta larrialdiak —barran botatako garabia eta iraulitako belaontzia, kasu—; utzi dizkigute irudiak, eta ez ohiko bisitariren bat ekarri ere bai —arranplara atsedean hartzera etorritako itsas txakurra—. Gugan lilura, zirrara eta batzuetan beldurra pizten duten balea zuriak dira, baina ezer gutxi dakigu olatuez. Zerk sortzen ditu? Nondik datoz? Zerk bihurtzen ditu hain bortitz?

Joseba Egañak (Zumaia, 1973) txikitatik zeukan garbi meteorologo izan nahi zuela. “Zortzi urterekin, besteek futbolari edo mediku izan nahi zutela zioten eskolan; nik meteorologo”. Gurasoen etxean, San Telmo kalean, estazio txiki bat muntatu zuen, egunero tenperatura, euria, haizea eta beste neurtzeko. “Egunero apuntatzen nituen datuak; paper zahar haiek gordeta dauzkat oraindik”. 2001ean postua lortu zuen Euskalmeten. Gaur egun Arabako Parke Teknologikoan du egoitza Euskalmetek. “Euskal Herrian zehar ehun bat estazio meteorologiko dauzkagu jarrita eta hamar minutik behin jasotzen ditugu datuak; Kapilduiko radarrak ere hamar minutuan behin bidaltzen ditu irudiak, eta satelite irudiak 15 minutuan behin jasotzen ditugu”. Informazio hori guztia eguraldiaren segimendua eta iragarpenak egiteko erabiltzen dute.

Aurten, baina, lehorreko datuei baino gehiago itsasoari begira egon dira. “Itsasotik denboraleak oso segidan etorri dira aurten, eta olatu handiak eragin dituzte. Alerta egoeran egon gara aste askotan. Otsailaren 2an eta martxoaren 3-4an alerta gorria ezarri zuten, eta hori ez da batere ohikoa. Aurten arte ez da sekula halakorik gertatu”. Erabat ezohikoa izan da aurten denboraleek ekarri duten indarra, baina Egañak dio negua dela, hain zuzen ere, denboraleen garaia: “Denboraleak normalak dira neguan. Abenduan hasi eta martxo hasiera arte, ohikoa da Ipar Atlantikoan, itsaso zabalean, ehun bat ziklogenesi leherkor sortzea; kontua da horietako gehien-gehienak oso iparretik egiten dutela bidea. Normalena da Islandia aldetik Irlanda eta Erresuma Batu aldera sartzea. Penintsularaino oso gutxi iristen dira. Gure itsasertzera iristen diren olatu handiak Islandia eta Irlanda artean sortzen diren depresio sakon horiek sortuak dira. Gugandik 3.000 edo 4.000 kilometrora”.

Ziklogenesi leherkorrak

Lehen aldiz 2009an entzun ziren bi hitz apokaliptiko horiek Euskal Herriko komunikabideetan. “Azken finean, depresio oso sakonak dira –20 milibare baino gehiago sakontzen duenean 24 orduko tartean—; gertatzen da izena oso erakargarria dela hedabideentzat, eta ordutik ziklogenesi leherkorrak egunkarietako izenburu asko bete ditu”. Depresio oso sakon hauek sortzen dira batik bat neguan, gure hemisferioan hilabete horietan izaten delako tenperatura alde handiena Ekuatorearekiko. “Lurraren Ipar Poloa eta Ekuatorearen artean tenperatura alde handiena neguan gertatzen da. Tenperatura asko aldatzen da espazio tarte txikian. Orduan, tenperaturan alde handia duten bi aire masa elkartzen dira, hotza bata eta epela bestea; aire epela gorantz doa eta hotza beherantz, hodeiak sortzen dira eta martxan da depresioa”.



Beraz, temperatura kontrastearen eraginez sortzen dira depresio sakonak Ipar Atlantikoan. Eta depresio sakona da olatuak sortu eta martxan jartzen dituen motorra. “Depresio sakonak haize bortitza eragiten du, 140 km/h-ko boladekin. Haize horrek sortuko ditu olatuak”. Olatuen tamaina eta indarra hiru faktoreren emaitza izango da. “Alde batetik, abiadura. Baina abiadura bezain inportantea da haizeak zenbat denboran eusten dion indarrari. Ohikoa da 120km/h-tik gorako indarrari eustea zenbait ordutan. Zenbat eta denbora gehiago haizea lanean, orduan eta olatu handiagoak sortuko ditu”. Eta badago hirugarren aldagai bat, esplikatzeko zailagoa, baina garrantzitsua dena: “Ingelesez *Fetch* esaten zaio; euskaraz, eragin eremua erabil dezakegu. Indarrari eta norabideari eutsiz haize bortitzak harrapatzen duen eremua litzateke. Mapa gaineko isobaren marretan ikusten da ondo. Zenbat eta eremu zabalagoa izan haize bortitzaren eraginpean, olatuak gehiago haziko dira”. Haizearen hiru ezaugarri horiek zehaztuko dute olatuen altuera eta denbora tartea –zenbat eta tarte handiago olatuen artean, orduan eta energia gehiago, ur masa handiagoa delako–.

Depresio sakonak olatuak sortu ditu itsasoaren erdian haizearen eraginez, eta handik zabaldu egiten dira, abiadura handian. “Gugandik 3.000 edo 4.000 kilometroa sortu diren olatuak 24-36 ordutan iristen dira gure kostaldera, hondoko itsaso bihurtuta”.

Hondoko itsasoa

Iragarpenetan sarri erabiltzen den kontzeptua da hondoko itsasoa. “Depresio sakonak itsaso zabalean sortu dituen olatu horiek, haizearen eragin eremutik urruntzen direnean esan genezake bizitza propioa hartzen dutela, beren kasa bidaiatzeko energia dutela. Horri deitzen zaio hondoko itsasoa. Gurera ekarrita, azken finean, itsaso zabaletik, urrutitik, datozen olatu horiek dira”. Eta gero daude tokian tokiko haize olatuak, bertako haizeak eragiten dituenak. “Normalean bien arteko nahasketa gertatzen da. Norabide berbera izan dezakete edo ez; konbinazio hori nola ematen den, itsasoa egongo da nahasiago, handiago...”.

Haizearen abiadura, iraupena eta eragin eremuari gehitu behar zaie olatuen norabidea. Euskal kostalderari dagokionez, oso mende-baldetik badatoz, orduan talka ez da hain bortitza izango. Depresio sakona gugandik iparraldera sortzen bada, Ingalaterra parean, orduan normalean olatuak ez dira hain handiak izaten, ez dutelako garatzeko tarte handirik; Ingalaterra hegoaldeko kostaldetik Euskal Herrira dagoen distantzia, gehienez. “Ipar-mendebaldeko norabidetik datozenak dira arrisksuenak, Irlandatik mendebaldera sortzen direnak; horiek kilometro asko dauzkate handitzeko, *Fetch* handia dute hazi eta indartzeko”.

Otsailaren 2ko txikizioak

Aurtengo denborale gehienak ipar-mendebaldeko norabidetik etorri dira. Guztietatik otsailaren 2koak eragin zuen txikizio gehien. Ez zen, ordea, olatu handienak ekarri zituena. “Datuak aztertzen baditugu, otsailaren 2ko olatuak ez ziren izan ez handienak, ezta bortitzenak ere –denbora tarteari dagokionez–. Olatu handiagoak izan ziren urtarrilaren 7an, otsailaren 5ean, otsailaren 9an eta martxoaren 4an”. Baina aipatutako egun horietan kalteak ez ziren hain larriak izan. Orduan, bada oraindik kontuan hartu ez dugun beste aldagai garrantzitsu bat: “Marea”.

Urtarrilak

7

Presioa depresioaren erdigunean: 936 mb.
Presioa Zumaian: 1016 mb.
Olatu handiena: 16,7 metro
Olatuen tamaina adierazgarria: 10 metro
Olatuen batzbesteko tamaina kostan: 8,5 metro

Olatu arteko tartea: 21-22 segundo
Olatuen potentzia: 51.000 kw/m
Marea astronomikoaren altuera: 4,22 m. (9:00etan).

NOLA SORTZEN DIRA OLATU HANDIAK?

1.- Neguan temperatura kontraste handia dago Ipar Poloaren eta Ekuatorearen artean. Aire masa hotzak eta epelak sarri elkartzen dira. Aire epela gora doa, hotza behera, eta depresioa sortzen da.

2.- Itsaso zabalean, Ipar Atlantikoan, ohikoa da neguan 100 bat ziklogenesi leherkor sortzea (depresio oso sakonak). Islandiatik Irlanda alderako bidea egiten dute. Haize bortitza eragiten dute, eta haizeak sortzen ditu olatuak.

3.-Haizearen abiadurak (120 km/h-tik gora), iraupenak eta eragin eremuak –ingelesez *Fetch*– zehaztuko ditu olatuen tamaina eta indarra –olatuen arteko denbora zenbat eta luzeagoa, orduan eta energia handiagoa–.

4.-Behin haize bortitzaren eragin eremutik ateratzen direnean, olatuak hondoko itsaso bihurtzen dira. Beraien kabuz bidaiatzen dute itsasoan zehar, oso abiadura handian. Irlandatik mendebaldera sortutako olatuak (3.000-4.000 kilometroa) 24-36 ordutan iristen dira gugana. Hain justu, ipar-mendebaldeko norabide horrekin datozenak dira olatu bortitzenak.

5.-Kostaldera iristen direnean eragin dezaketen kaltea neurtzeko aintzat hartu behar dira marea astronomikoa eta marea barometrikoa. Marea astronomikoa da Ilargiak eragiten duena, eta marea biziak egokitzen direnean olatuen ahalmena izugarri handitzen da. Marea barometrikoiari dagokionez, lekuan bertan dagoen presio atmosferikoaren eragina da. 1.013ko mugatik jaisten den milibare bakoitzeko zentimetro bat gehitu behar zaio marea astronomikoari. Adibidez, Zumaia gainean 970 milibare izango bagenu, orduan ia metro erdi gehiago igoko litzateke marea.



Urtarrilak

28

Presioa depresioaren
erdigunean: 956 mb.
Presioa Zumaian: 995 mb.
Olatu handiena: 12 metro
Olatuen tamaina
adierazgarria: 8 metro
Olatuen batzbesteko
tamaina kostan: 6,5 metro

Olatu arteko tarteak: 17-18 segundo
Olatuen potentzia: 17.500 kw/m
Marea astronomikoaren altuera: 3,97 m. (14:41ean).

Otsailak

2

Presioa depresioaren
erdigunean: 940 mb.
Presioa Zumaian: 1016 mb.
Olatu handiena: 13 metro
Olatuen tamaina
adierazgarria: 8 metro
Olatuen batzbesteko
tamaina kostan: 6,5 metro

Olatu arteko tarteak: 20 segundo
Olatuen potentzia: 25.000 kw/m
Marea astronomikoaren altuera: 4,94 m. (06:00etan).

Otsailak

5

Presioa depresioaren
erdigunean: 948 mb.
Presioa Zumaian: 1006 mb.
Olatu handiena: 16 metro
Olatuen tamaina
adierazgarria: 9 metro
Olatuen batzbesteko
tamaina kostan: 7,5 metro

Olatu arteko tarteak: 17-18 segundo
Olatuen potentzia: 30.000 kw/m
Marea astronomikoaren altuera: 4,28 m. (08:28etan).

Otsailak

9

Presioa depresioaren
erdigunean: 944 mb.
Presioa Zumaian: 1010 mb.
Olatu handiena: 17 metro
Olatuen tamaina
adierazgarria: 10 metro
Olatuen batzbesteko
tamaina kostan: 8 metro

Olatu arteko tarteak: 18-19 segundo
Olatuen potentzia: 40.000 kw/m
Marea astronomikoaren altuera: 3,36 m. (00:22etan).

Martxoak


4

Presioa depresioaren
erdigunean: 966 mb.
Presioa Zumaian: 1011 mb.
Olatu handiena: 17 metro
Olatuen tamaina
adierazgarria: 10 metro
Olatuen batzbesteko
tamaina kostan: 8-9 metro

Olatu arteko tarteak: 19 segundo
Marea astronomikoaren altuera: 4,83 m. (06:33etan).



2



3



4



5



Datuen iturria: Euskalmet eta Azti

Ikonoak: Wind by Dmitry Baranovskiy from The Noun Project

Hurricane by Gilad Fried from The Noun Project

Surf saio gogoangarria

Olatu handiak agertzen direnean ez dira oso aparte izaten surfleriak. Moby Dick menperatzera datozen Ahab kapitainak dira. Negu honetan gozatzen ari dira olatu handitan ibilizaleak direnak, eta bereziki saio gogoangarria izan zen otsailaren 9koa. Goizetik iluntzeraino, olatu tente eta garbiak izan zituzten Izustarri parean. Ikuskizuna eskaini zuten hainbat surflerik, ur motorraren laguntzarekin batzuek, besoen indar soilarekin besteek. Tartean zen Imanol Yeregi zumaiarra.

Bideoa: surfean
Izustarrin



Arraunlariak entrenatzen,
otsailaren 2an Argazki honek
oihartzun handia izan
zuen sare sozialetan.



Bideoa
belaontziaren
istripua (Aymat)




Garabia, itsas txakurra eta belaontzia

Itsasoa gaiztotzen denean erne ibili beharra dago, istripuak gerta daitezke eta. Urtarrilaren 31n, aurreko denboraleek barran askatutako harriak kentzen ari ziren garabiak eta hondeamakinak istripua izan zuten. Hondeamakina garabiaren kabinaren gainera erori eta langile bat larri zauritu zen. Kolpearen ondorioz, garabia matxuratuta barran utzi behar izan zuten. Hurrengo egunean ahalegindu ziren ateratzen, baina ez zuten lortu, eta otsailaren 2ko itsaso handiak uretara bota zuten. Han jarraitzen du, noiz aterako zain.

Handik bi astera, otsailaren 14an, itsas txakur bat sartu zen Urolaren itsasadarrera, atsedean hartzeko babesleku bila. Arranplan lehorreratu zen, eta hantxe egin zituen lauzpabost ordu, indarberritu eta berriro itsasoratu zen arte. Aurten itsas txakur asko agertu dira euskal kostaldean.

Eta azken ezustekoa otsailaren 22an gertatu zen. Estropada batetik bueltan zetorren belaontzi batek istripua izan zuen barra parean: olatu batek atzetik kolpatu, trabeska jarri eta ia erabat iraularazi zuen ontzia. Eskifaiaiko lau lagun uretara erori ziren. Zorionez, gertu zegoen OlarruSubeko kide Imanol Zuazobidek erreskatatu zituen elkarteko ontziarekin.

Txikizioei dagokienez, barran izan ezik, Zumaian ez da aparteko kalterik izan. Barran, alde batetik, goiko petrilarren hainbat zati eraman ditu, alde berrian zein zaharrean. Baina okerrean beheko solairuan, aurrealdean, egindako zuloa da. Barra aurrera iristeko zegoen pistaren 30 bat metro eraman ditu itsasoak. Hori konpontzen ari dira, besteak beste, uretan iraulita dagoen garabia lehenbailehen atera ahal izateko, maiatzean Balentziagak ontzi bat itsasoratu behar du eta.



Bideoa
itsas txakurra



Bideoa
otsailak 2





kuttun
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



malaur

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaia plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatexea • taberna

oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



MENDI - ONDO c.b.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 537 901



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

636 887 812 (Zumaia)
809 834 438 (Itziar-Deba)
www.carroceriasnoia.com



Nikol
taberna

Amaia plaza 943561516

MARGARI Aruta-denda



Tel. : 943 86 19 20
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

ETXEGINTZA



OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutzilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaltz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Indutrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide Ibiltoikia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401





Bideoa
martxoak 4



Itsasoaren altuerak berebiziko garrantzia izan zuen otsailaren 2an. “Urtarrilaren 31n Irlandatik mendebaldera zegoen depresio sakonaren erdigunea -940 milibareko presioa zeukan–; haizeak 120 kilometro orduko abiadurari eutsi zion luze, 180ko boladekin –urakanen parametroak dira horiek–. 17 metrotik gorako olatuak sortu zituen itsaso zabalean, baina gurera gerturazterako 13 metrokoak ziren handienak, eta zortzi ingurukoak batezbestekoak –Donostia parean 16 miliara dagoen buian–. Kostaldera iristerako, 6,5 eta 7 metro artekoak. Eta olatuen arteko denbora tarte 20 segundo ingurukoa. Datu adierazgarriak dira, baina, esate baterako, urtarrilaren 7an ia 17 metroko olatua markatu zuen Donostiako buiak, batezbeste zortzi metrotik gorakoak kostan lehertzerako, eta potentzia ere bikoitza zuten”. Baina txikizioa otsailaren 2an gertatu zen. “Otsailaren 2an urteko marea bizienetakoak egokitu ziren justu itsasoa indar handienarekin zetorrenean. Goizaldeko 06:00etan, 4,94 metroko marea zegoen, eta horrek olatuen gaitasuna biderkatu egin zuen”. Martxoaren 4an ere marea biziak izan ziren, baina, zorionez, olatuen tamaina handiena itsasbeheran egokitu zen.

Marea barometrikoa

Marea astronomikoan Ilargiaren grabitate indarrak du eragin handiena –marea bizienak gertatzen dira martxoan eta irailean, Ilargiaren indarrari Eguzkiarena gehitzen zaionean, biak lerroan jarrita–. Baina bada itsasoaren altueran eragina izan dezakeen beste faktore bat: atmosferaren presioa. “Marea barometrikoa deitzen zaio. Depresioa zenbat eta sakonagoa, marea orduan eta altuagoa. 1.013ko mugatik presioa jaisten den milibare bakoitzeko, mareak zentimetro bat egingo du gora; eta alderantziz, presioa igotzen bada –antizikloia–, aireak pisu handiagoa izango du eta itsasoaren altuera murriztuko du”. Zorionez, denboraleak gertatu direnean gure gainean ez dugu depresio sakonik izan eta marea barometrikokoak apenas izan du eraginik itsasoaren altueran. Baina, gertatuko balitz? “Oso zaila da aipatzen ari garen aldagai guztiak balio okerrean aldi berean gertatzea. Otsailaren 2ko baldintzei gehituko bagenie depresio egoera gure gainean, marearen altuerari –berez oso handia– beste ia metro erdi gehitu beharko genioke. Ondorioak are larriagoak lirateke”.

Frantzian gertatu zen, 2010ean. “Otsailaren 27an Cynthia izeneko ziklogenesiak 40 lagun hil zituen Frantzian. Haize bortitza eta olatu handiak izan zituzten kostaldean, mareak ere biziak egokitu ziren eta horri gehitu zitzaion Cynthia 960 presioa zeukala erdigunean, Frantzian bertan; hau da, beste metro erdi gehitu behar itsasoaren altuerari. Sekulako uholdeak izan ziren, batik bat kostaldean. Hemen hego haizeari esker libratu ginen, Cynthia iparraldera bultzatu zuelako”.

Pasioarekin kontatzen ditu Joseba Egañak eguraldiari buruzko kontuak. Umetan etxeko anemometroari begiratzen zion pasio berberarekin. “Datuak, ekuazio matematikoak eta modeloak erabiltzen dira eguraldi mapak sortzeko, baina beti dago errore-rako tarte. Gure lana da mapak egoki interpretatzea. Batzuetan, modeloek emaitza ezberdinak ematen dituztenean, jakin behar duzu bereizten zein izan daitekeen aukera egokiena, eta hori esperientziak ematen dizu. Hor sartzen da pertsona. Bestela, dena perfektua balitz, pertsonarik ez litzateke beharko, programa batek egingo luke”. ■

ERREPORTAJEA

LURZORUTIK 110 MILI- METRORA

TESTUA: IZASKUN URBIETA
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA



Oraindik kirol talde modura erregistratu gabe daude, baina herrian badira patinetan ibiltzen diren hainbat pertsona. Asteartero, Zumaiako Herri Eskolako gimnasioan elkartzen dira beraien afizioa besteekin konpartitzeko, ikasteko eta hobetzeko. *Jirabira* dute whatsapp taldeko izena; ezezaguna herritar askorentzat, “baina horrek ez du esanahi gu bakarrik elkartu gaitezkeenik; horregatik, edonor animatu nahi dugu gurekin ibiltzera”. Jauzi, buelta, akrobazia eta kilometro asko egiteko ilusioarekin, hauxe da kirol talde berri honen errodata.

Donosti Roller, Irristaka, Hanka Labanka... Inoiz entzun gabeko izenak izango dira pertsona askorentzat, baina guztiek dute zerbait komunean: patinak. Zumaian ere badira gurpil gainean ibiltzea gustuko duten pertsonak, eta duela ia urtebetetik hona, talde modura elkartu, entrenatu, jolastu eta batez ere ongi pasatzea dute helburu. “Egun batean *Donosti Rollerekoek* antolatzen duten martxa batera joan nintzen neure kasa, eta han Isabel Artetxe eta Iñigo Berastegirekin topatu nintzen”, aipatu du Sara Txapartegik. “Iñigok komentatu zidan zergatik ez ginen patinetan ibiltzen ginenok elkartzen, eta, hala, berak animatuta hasi ginen”, gaineratu du Ana Egañak. Hala ere, patinetan ibiltzearena ez da berria berarentzat. “Badira bost-sei bat urte, Anak berak antolatu zuen ikastaroan izena eman nuela”, esan du Iñigok. Izan ere, Ana Institutuko Guraso Elkartearen zegoela, ikastaro batzuk antolatzeko erabakia hartu zuten, eta berak patinetan ikastekoa eman zuen. “Nik ikastaro hori egin eta iaz arte, apenas ibili nintzen berriro. Baina Donostiara joan nintzen ibilbide bat egitera, gustatu, eta pixkanaka herrian ibiltzen zirenak ezagutu eta whatsapp-ean taldea sortzea erabaki nuen”, gaineratu du Iñigok.

Talde irekia

Hasiberriek, moldatzen direnek, hobetu nahi dutenek..., guztiek dute lekua talde honetan. “Lehen, patinetan ibiltzera ateratzen zinen kalera, eta beste inor ikusi gabe bueltatu zintezkeen etxera. Orain, talde honi esker, denok batera ibiltzeko aukera dago, afizioa elkarbanatzeko, eta polita da”, adierazi du Mikel Elizalde. “Edonor etor daiteke gurekin ibiltzera. Batzuek pentsatzen dute serio hartzen dugula, denok oso ongi ibiltzen gara..., eta ez da horrela. Denetarik gaude”, esan du Arantzazu Etxeberriak.

Guztira, 22 pertsonak osatzen dute whatsapp-eko taldea, eta horietatik 2 azkoitiarrak dira. “Batzuk behin bakarrik etorriko ziren, beste batzuk inoiz ere ez, baina pentsatzekoa da hor egon nahi dutela, eta egiten ditugun ekintzak interesatzen zaizkiela”, aipatu du Iñigok.

Hala ere, guztiak bat etorri dira taldearen helburua zein den adieraztean: disfrutatzea, ongi pasatzea eta bakarrik ez patinatzea. “Kirol probetan ateratzea edo ez norberak erabakitzen du. Guk, batez ere, lagun artean gure afizioaz gozatzea nahi dugu, eta pixkanaka hobetzen joan, teknika ikasten, abiadura hartzen. Gero, bakoitzak jartzen ditu bere helburuak eta horiek betetzen saiatzen gara”. Horretaz gain, “inoiz ez da ikasten amaitzen, beti nahi izaten da gauza berriak probatu, hau da, jauziak egin, atzeraka ibili...”, gaineratu du Mikelek.

Aniztasuna da taldearen ezaugarrietako bat. Guztiek dute lekua; gazteek eta helduek, emakumeek eta gizonak. “Garai batean, nesken kontua bezala ikusten zen patinatzea. Mutilei lotsa ematen zien. Baina gaur egun ikuspuntua aldatzen ari da, eta pixkanaka denen artean arrakasta izaten”, aipatu du Anak. “Umeen kirola dela ere esaten dute batzuek, eta nik uste, batik batik lasterketei esker, jendearen iritzia aldatzen ari dela”, gaineratu du Arantzazuk. Sararen iritziak, “umetan erakusten da patinetan ibiltzen, eta behin ikasita, ez zaio segidarik ematen, haustura bat egoten da”. Mikelek aldiz, honela jarraitu du: “gauza ku-



“Taldean patinatuz abiadura
aprobetxatu egiten da; aurrean
doanak gainontzekoak eramaten
ditu”

rioso bat ere gertatzen da. Umetan, neska eta mutil bati patinak eman, eta, ziur aski, neskak jarraituko du helduagoa denean ere, baina lasterketetan edo probetan, berriz, gizonezkoak dira nagusi”.

Gaitasunak lantzea, oinarritzkoa

Patinetan ibiltzea gero eta ohikoagoa bihurtzen ari da. Hori dela eta, hainbat modalitate egiteko aukera dago. *Free style, derby roller, slalom-a, roller sky* “Batzuk teknikoagoak dira, jauziak dituzte, akrobaziak “. Baina lasterketak ere egiten dira, eta gero eta herri gehiagotan antolatzen dira, normalean, korrikako proben baitan. “Zumaian, lehen aldiz, erakustaldi gisa egin zen Zakila Biran, orain bi urte”, aipatu du Anak. “Gero, iaz egin zen lehen aldiz lasterketa, eta aurten bigarren edizioa izan da”, jarraitu du. “Ia 15.000 metroko distantzia osatu genuen herriko krosean, baina distantzia askotako lasterketak daude: 5.000 metro, 10.000 metro, maratoiak “, esan du Iñigok.

Normalean, asteartetan elkartzen dira Herri Eskolako gimnasioan, eta bertan ariketak egiten dituzte abiadura eta koordinazioa lantzeko, oreka mantentzeko, teknika hobetzeko, eta jolasak egiteko. “Ez da ikastaro bat, ez dago irakaslerik, eta edozein mailatako jendea etor daiteke. Gu ere afizio berberak elkartu gaitu”, gogorarazi dute patinatzaileek.

Lasterketak prestatzeko, aldiz, erresistentzia handiagoa eta abiadura azkarragoa beharrezkoak dira, eta, horregatik, askotan Arroabeko industrialdera joaten dira metroak egitera. Nahikoa ez eta, Ana, Sara eta Iñigo, abiadura lantze aldera, Astigarragan egiten den ikastaro batera joaten dira noizbehinka. “Elkarri laguntzen diogu ondoren. Bakoitzak dakiena, edo ikasi eta ikusi duena, besteei erakusten saiatzen da, aholkuak emanez”, aipatu du Sarak.

Baina guztiaren gainera, norberaren gaitasuna noraino heltzen den ezagutzea da oinarritzkoena. “Lasterketan, esaterako, abiadura handia hartzea ez da zaila, baina erritmo hori mantentzea bai, ordea; horregatik, bakoitzak bere gorputza ezagutu behar du, eta jakin noraino iristen den”, esan du Sarak. “Hala da, niri gertatu zait lasterketa batean irten, azkarregi hasi eta gaizki amaitzea. Zumaia lasterketan, berriz, 15 km-ak ongi amaitu nahi nituen, disfrutatzen, eta lortu nuen”, baieztatu du Arantzazuk. “Bakoitzak bere helburuak ipintzen ditu. Ni Astigarragara joaten naizenean, besteekin alderatuz, oso baldarra naizela iruditzen zait, baina ikasteko gogoarekin joaten naiz”, esan du Anak.

Orain arte, bakarka ikasi dute patinetan ibiltzen, eta hori lasterketetan antzeman daiteke. “Adibidez, taldean patinatuz, abiadura aprobetxatu egiten da. Aurrean doanak gainontze-koak eramaten ditu, eta talde horretan sortzen den abiadura askoz ere azkarragoa da norberarena baino”, esan du Anak. Gainera, ikusgarritasunaren distira ere azpimarratzekoa da ki-

rol honetan. “Pertsona batek baino gehiagok aipatu dit ikusgarria izan zela patinen herriko proba”, gaineratu du Anak. “Bai, espektakulu hutsa izan zela”, esan du Arantzazuk.

Patinatzaileen arteko esaera batek dioenez, patinetan ikas- teko, erortzen ikasi behar da. Baina zein gaitasun behar ditu patinatzaile batek? Guztiak ados daude oreka, kontzentrazioa, erreflexua eta koordinazio ona izatea funtsezko ezaugarriak direla, gainera, denborarekin eta praktikarekin hobetzen doazenak. Eta Mikelek aipatu bezala, “erortzeari beldurra galdu egin behar zaio. Hor dago gakoa, eta pertsona askok horregatik ez dute kirol hau egiten”. Ongi erortzeak lesioak saihas ditzake, eta, horregatik, ongi lurrertzen ikasi behar da. “Kurtso bateko saio oso batean, soilik erortzeko ikasten ibili nintzen, eta egokiena, lehendabizi makurtzea da, gero belauak lurtean jartzea, eta azkenik eskuak ipintzea, betiere behatzak goraka dituzula. Bestela, erre egiten baitituzu”, gogoratu du Sarak. “Arazoa gertatzen da, ez erori nahian, berdin-berdin lurrera erori eta min handiagoa hartzen duzunean”, esan du Anak.

Gurpilen sekretua

Patinetan ibiltzeko zenbait arlo kontuan hartu behar dira. Hala nola, zorua eta materiala. Lehendabiziko kasuan, guztiak bat datoz, egokiena lur leun, irristakor eta ordekakoan ibiltzea dela, “errepidea, adibidez”. Baina oso arriskutsua da, eta hortaz bide gorria dute aukerarik politena. “Nahiz eta gehienez ehuneko 5eko abiaduran joan daitekeen, eta guri hori motelegi iruditu”. Zumaia patinetan ibiltzeko herri egokia dela aipatu dute. “Ordeka da, eta ibaiaren bueltan ibilbide polita dago. Pena da motz samarra dela, eta ongi entrenatzeko, behin baino gehiagotan egin behar dugula”.

Materialen kasuan, eta zehatzago patin moten inguruan, aukera anitza dago. “Praktikatzen duzun estiloaren arabera, patin mota bat edo bestea dago”, aipatu du Sarak. “Guk, normalean, bi patin mota erabiltzen ditugu. Alde batetik, fitness-ekoak, alegia, edozein kirol dendatan eros daitezkeenak, eta, bestetik, abiadurarakoak”. Lehenengoak entrenatzeko eta ariketak egiteko erabiltzen dituzte; bigarrenak, berriz, lasterketarako dira eta gurpil handiak dauzkate. Anak kontatu duenez, “oso ongi ibiltzen diren patinatzaileek 110 mm-ko diametroa duten gurpilak erabiltzen dituzte. Horiek in altuago joaten dira, lurzorutik gorago daude eta ibiltzeko zailagoa den arren, azkarrago irrist egiten da”. Gehienek, ordea, 100 milimetroko gurpilak erabiltzen dituzte.

Baina horretaz gain, errodamenduak, segurtasunerako gailuak, entrenatzeko eta jolasteko tresnak Denetarik behar da. “Gainera, materiala ez da oso merkea”, aipatu dute. Abiadurarako patinik sinpleenak, esaterako, 250 euro inguru bali du. “Patineko botak bizi guztia iraun dezake, erakusleak (gurpilak lotzeko gailua) ere irauten du, baina gurpilak asko gastatzen dira, eta pertsonaren erabileraren arabera, behar bada urtean behin aldatu egin behar dira”, esan du Arantzazuk. Patin hauek, gainera, ezin dira edozein lekutan erosi. “Abiadurarakoak, hemen Euskal Herrian, Gasteizen eta Iruñean bakarrik ditugu”, adierazi du Mikelek. ■

Primavera pizzeria

943 247 011

www.laprimaverapizzeria.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

RUBIO Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERAK,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea

SESMA
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206
www.entrenadorpersonalesma.com
josebasesma14@gmail.com

Talajaia
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

TALAI-PE
jatetxea-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

Tapaia
Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA

Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondok (hodilloa)
Salbitzak, oilaskoak...
Garagardok dukeron

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

Txingurri
Loradenda

Loradenda Lorazaintza
erribera, 1 tel. 943 860 778
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

UPELA PARABOTIKA
BELARDENDA

- ✓ Sendagai naturalak.
- ✓ Osteopatia eta masajeak.
- ✓ Naturista, dietetika eta elikadura.

Upela plaza, 9
943 537 911
upelabelardenda@hotmail.com

Zalla

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Upela Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA

E-mail: zumaiaautoeskola@euskalnet.net

BASADI 12
20750 ZUMAIA
Tel. 943861018 / Fax: 943016126

Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia

Alai suztegia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller
ZUMAIA MOTOR, S.L.

José Rey Alfaro
Gerente

Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiaomotor@telefonica.net

ESKERRIK ASKO

—
25 URTE ZUEKIN

%25
DESKONTUAK

25 urtez gure ondoan zaudelako.

EDU
ZUMAIKO OPTIKA

Txomin Agirre 6, 20750
T 943 143 057
www.eduoptika.com

EUSKARA ETA KULTURA UZTARTUTA EUSKURA

TESTUA: XABIER AZKUE IBARBIA
ARGAZKIA: GORKA ZABAleta

Euskara bultzatzeko orduan hainbat arlo bereizten ditugu (familia, kirola, aisialdia, lan mundua...) eta horietako bat da kultura ere. Hala ere, euskara bera bezalaxe, beste arlo guztietan dagoen kontu bat da, zeharka guztiarekin lotzeko modukoa. Askotan joera daukagu kultura batez ere programazioarekin eta kontsumoarekin lotzeko, eta ez gara ohartzen sorkuntzan eta

antolakuntzan hartzen ditugun erabakiekin kultura lantzen ari garela. Udalak berak antolatutako kultura dago alde batetik (emanaldiak, erakusketak, ikastaroak...), banakako sortzaileek egiten dutena bestetik, eta bukatzeko, taldeen bitartez jasotzen duguna. Azken hori aztertu dut bereziki azken hilabeteotan, eta euskarari dagokionez nola ikusi dudana aurkeztu nahi dizuet.



Kultura bera definitzea ez da erraza, eta euskal kultura zer den ere eztabaidagarria izan daiteke. Lan honetarako hartu dudana irizpidea da **euskal kultura deitzea euskaraz edota euskara erdigunean dela egiten den kulturari**.

Zumaian talde asko daude, eta zuzenean kulturarekin lotura ez dutenek ere badute zeresana kontu hauetan: kirol elkarteek, gizarte alorreko taldeek, elkarte gastronomikoek... Azken urteotan dezentze begiratu diogu ea talde eta elkarte horiek euskaraz funtzionatzen duten ala ez, baina horrekin batera euskaraz sortzeak eta publikoari eskaintzeak ematen dio bizitzeko indarra euskara bezalako hizkuntza txiki bati. Jon Sarasuak *Hiztunpolisa* liburuan askotan azpimarratu duen ideia da euskararen zoria gizarte ehunari eta gertuko sareari lotuta ikusten duela gero eta gehiago. Ildo horretatik, estrategikoak iruditzen zaizkit Zumaiko bi taldek egin ditzaketen ekarpenak: Baleikek eta Bertso Eskolak.

Baleikek indar handia hartu du azken urteotan, eta kulturari eta beste alorretan egiten den lanaren erakusleho edo bozgorailu nagusia da, herritar askoren erreferente. Herriko talde eta elkarteekin duen harremanari esker, *saregile* lanak egin ditzake, eragile izan daiteke, gainerako taldeen aktibitatei edo laguntzaile, nolabaiteko komunitate baten sortzaile. Kanpoko kultur eskaintzari dagokionez, formatu txikiko ikuskizunak ekartzeko erraztasunak ditu (Kultur Errota egitasmoan), eta taberneko edo Udaleko Kultura sailak egiten dutenen osagarri izan daiteke. Zumaiarekin lotutako jakintza lantzeko eta zabaltzeko baliabideak eta eskarmentua badituela uste dut, eta horrek hutsune bat betetzen lagunduko luke. Imajinatzen Zumaiari buruzko *wikipedia* moduko bat?

Bertso Eskolak ere lan garrantzitsua egin lezake lehen dauden sare horiek osatzen, beste talde askorekin lanean aritzeko izan ditzakeen erraztasunagatik; esaterako, musikariekin abestiak egiteko, rap estiloko tailerrak antolatzeko, bertsoekin lotutako emanaldiak, ikastaro edo saio bereziak (euskaltegian, zahar etxeetan...), baliabideak partekatzeko, etab. Gazteen artean hizkuntza aberasteko eta zorrozteko ere lan ona egiteko aukera du Bertso Eskolak.

Galdekizun bat bidali nien talde hauei, eta ia guztien erantzunak jaso ere bai. 28 talde daude mapan irudikatuta, kulturarekin lotuta jaietan eta jaietatik kanpo jarduerak antolatzen dituztenak, haietako batzuk beste alor batzuetakoak izan arren.

3 tamaina berezi ditut, irizpide nagusizat hartuta **kide aktiboaren kopurua**.

- Handiak (30 kidetik gora)
- Ertainak (10-30 kide)
- Txikiak (1-10 kide)

4 kolore erabili ditut **euskal kulturaren transmisioan** duten papera adierazteko:

Berdea: euskarazko sormena landu eta plazaratzen du taldeak

Hori-berdexka: besteek euskaraz sortutako lanak erreproduzitzen dituzten taldeak (errepertorioan sartuta...) eta sormen

zati bat ere badu, agian

Laranja: euskarazko lanak eskaintzen ditu taldeak, beste batzuen bitartez (paper pasiboa)

Gorria: zerikusirik ez du edo ia eskaintzarik ez du euskal kulturari dagokionez.

Marrek **taldeen artean dauden harremanak** adierazten dituzte.

----- Marra etenak noizbehinkako harremana edo lankidetzaren puntuala adierazten du.

_____ Marra jarraituak ohiko elkarlana eta harreman estua.

Talde asko daude eta ekintza eta jarduerari ugari antolatzen dituzte urtean zehar; hileko kultur agendak ikusi besterik ez dago.

Adierazgarria da musikaren inguruko taldeen artean dauden harremanak, bizitasuna, proiektuak... Elkarlanean aritzen dira, eta bestelako talde eta erakundeak ekartzeko gaitasuna erakusten dute: zinegotzi guztiak jarri zituzten Gabonetan kantuan, kontzertu bereziak eskaini, inauterietan jai bereziak antolatu, CD bat atera bandaren eta San Pedro abesbatzaren artean... Musika taldeak Dardara izeneko kolektiboan bilduta daude, eta azpimarratzekoa da horren barruan euskara guxtiengoan dagoela abestien hizkuntzari dagokionez; alderdi baikor bat ere ikusi dugu, ordea, arrakasta gehien duen taldeetako bat euskaraz aritzen delako, ISEKA izenekoa.


Beste talde batzuen artean ere ikusten dira elkarlanean landutako ekimenak, garai bateko ohiturak berreskuratzeko eta berritzeko: Inpernupe, Joareak, ZUGA, Astindu... San Juan bezperan Eki eguna antolatzen da, Gabonetan Olentzero eta Gomezago, inauteriak...

Oro har, datu positiboa da euskaraz funtzionatzen dutela gehienek (%72k bilerak euskaraz edo euskaraz gehiago), eta talde gehienek jardueretan euskara lehenesten da (%87). Dena ere antzeko azterketa bat egin zuten duela 2-3 urte, eta hango datuak kaskarragoak ziren. Ostarrena taldearen kasua berezia da, taldeak euskaraz funtzionatzen duelako baina erdarazko jarduerak eskaini, sektorean horixe delako panorama orokorra, eta ez duelako helburu nagusi bezala euskal kultura eskaintzea.

Zer egin genezake gorria laranja bihurtzeko, laranja berde? Batzuetan taldeak zerbait aldatzea nahikoa litzateke, euskal kulturari tokitxo bat egitea (ikastaroak, emanaldiak edo hitzaldiak antolatuta); beste batzuetan euskarazko sorkuntzak erraztuko luke kolore aldaketa hori eta elkarlanean egiteak beste pisu bat ematen dio egindakoari; herri mailan zein kanpokoekin aukera asko daude horretarako, proiektuak partekatuta euskal kultura bultzatzeko.

Kultura Mahaitik Kulturriturrira

Mahaiaren irudia bera estatiko samarra da, eta 2012an sortu zenetik esan genezake praktikan ere ez du alorra asko mugitu. Beste herri batzuetan elkarteak aldetik sortu izan dira horrelako batzordeak, eta taldeen ikuspegitik zalantza batzuk jaso di-



ZUMAIAKO KULTUR ELKARTEEN MAPA

Kultur elkarteek euskararekin eta elkarren artean duten harremana aztertu du Xabier Azkuek, eta diagrama hau osatu du.

tut Mahaiaren martxaz eta helburuez. Batzuentzat, hitz egin asko egiten da eta egin gutxi; beste batzuentzat, ez da aurrez nahikoa hitz egin, gogoeta egitea eta gauza batzuk adostea falta izan da. Eta denek izan dezakete arrazoi.

Orain artean informazioa trukatzeko gunea izan da, gehienbat Udalarena zabaltzeko baliatu da: diru-laguntzak, lokalen erabilera...

2011n nolabaiteko gogoeta bultzatu zen, *Kultura Zumaian 2020* egitasmoan, baina han taldeen premiei erantzun zitzaion gehienbat, edo azpiegituren erabilerari. Galdera honen erantzun argirik ez zen landu: **kulturaren aldetik nolako Zumaia nahi dugu 5-10 urte barru?**

Arloko talde, sortzaile, antolatzaile, kudeatzaile eta arduradun politikoen artean hausnarketa bateratua bultzatu beharko litzateke lehenbizi, Kultura Mahaiak adostutako norabide estrategiko batzuen arabera lan egin dezan. Lanerako oinarrietako hauek izan daitezke:

- Euskara eta euskal kultura jartzea erdigunean.
- Auzolana izatea bide: elkarlana, proiektuak adostea, denon irabazia lortzeko.
- Zumaiartasuna: herri izaera indartzea, horren kontzientzia lantzea.

Eta aurrera begira, Mahaiaren ordez beste irudi bat propo-

satu nahiko nuke: **Iturria, Kulturriturria**. Ez edozein iturri, gainera: **Sanjuaniturri**. 1889 inguruan egin zuten iturria, herriaren erdi-erdian dago, hortxe daude Zumaiaiko jauregirik zaharrenak, eta hortxe hasten da Kale Nagusia. Orain ura etxean daukagu, lehen bila joan behar izaten zen, baita arropa garbitzera ere, eta horrek aukera ematen zuen jendearekin hitz egiteko.

Ez da sinbolo edo ikur soila, metafora edo irudi bat ere bada: denon artean sortu behar da iturriko ura, eta zenbat eta hobeto antolatu barruko hodiak, orduan eta emari hobea eta kalitate handiagokoa emango du iturriak. Barruan daude kultur gileak eta sortzaileak, norbanakoak eta taldeak, elkarte-kideak eta Udaleko langile eta ordezkariak. Kanpoan jasotzen da emaitza, era askotakoa, gure eta euskararen egarria aseko duen URA: fluxua, mugimendua, bizitasuna, berrikuntza.

Sanjuaniturrik badu bestelako elementu berezigarri bat ere: SUA. Udako solstizioa iturri horren ondoan ospatzen da urtero, su handi batekin, inguruan dantza eta jauziak eginda. Suak berotasuna adierazten du, argia, indarra... Tradizioa, lehenarekin lotura, eta euskara ere islatzen du, Jon Sarasuak bultzatuta irudiaren arabera (Amaren sua).

Elkarren ondoan ikusten ditut, beraz, sua eta ura, euskara eta kultura. Hitz batean: **EUSKURA**. ■



BEHEKO PLAZA JATETXEA

GASTRONOMIA ETA KULTURAREN ELKARGUNEA

ANDONI TXINTXILLAK ETA ANNE AGIRREK ORAIN IA HIRU URTE HARTU ZUTEN BEHEKO PLAZA JATETXEAREN KUDEAKETA, ETA BESTE ERA BATEKO GASTRONOMIA AURKEZTEA IZAN DUTE ARDURA NAGUSIA. EGUNEKO MENUA, ASTEBURUKOA EDO KARTAKOA AURKI DEZAKETE BEZEROEK. “ESKAINZA ABERASGARRIA EGITEN SAIATU GARA, FUSIO BIDEZ ITALIAKO JAKIAK SARTUTA. HIRU ESPEZIALITATE DITUGU: PASTA, RISOTTOAK ETA PIZZAK. DENAK ERE ETXEAN EGINDAKOAK”.

BERTAKO PRODUKTUEN ALDEKO APUSTUA

“Haragia Zumaiako harakin bati erosten diogu, garaiko barazkiak bertako baserritarrei eta arraina ere garaian garaikoak erabiltzen dugu. Bertako ekoizleekin egiten dugu lan, herritar eta bisitari guztiei zerbait erakargarria eskaintzeko”.

ESKAINZA ZABALDU

“Gastronomia italiarra mantentzen dugu, baina parrilla eskuratzeko aukera eman digu sukaldaritzaren tradizionaleko joratzeko”, jatetxea Euskal Herriko tradizioarekin lotuta. “Parrillan era guztietako jakiak presta daitezke, ikatzak ematen dien zapore bereziarekin”. Burruntzia ere erabiltzen dute haragia su mantsoan prestatzeko.





ARRAINA **KETZEKO** ASMOA

“Arraina ketzen hasteko asmoa dugu. Horrela, guk ketutako kalitatezko arraina zerbitzatzeko gai izango gara”.

POLTSIKO GUZTIETARA EGOKITU-TAKO ESKAINTZA

“Dagoeneko hasiak gara hanburgesa bereziak ematen, parrillan erretako bertako haragiarekin eta ogi eksklusiboarekin”.

PINTXO POTE DESBERDINA

“Ostegunetan izaten da, baina barra pintxoz beteta edukitzea baino nahiago izan dugu momentuan pintxo beroak ateratzea, sukaldaria dagoelako momentoro”. Asteburuetan eskaintza zabalagoa da. “Ostiral arratsaldetik igande eguerdira Kronen pintxo dugu: momentuko pintxoak kaña, ardoa, marianitoa, cava kopa edo freskagarri batekin, 2 euroan”.

HILERO ESKAINTZA **DESBERDINAK**

“Otsailean ardo dastatzea egin genuen maridajearekin, eta datozen hilabeteetan ildo beretik jarraitzeko asmoa dugu. Jada hitz egin dugu zenbait ardo, sagardo edo cava bodegarekin”.

GASTRONOMIA ETA KULTURAREN GAUAK

Buffet batean, munduko platerak dastatzeko aukera izaten da prezio baxuetan (edariak aparte). Gauek musika edota dantza saioekin jarraitzen dute. “Iaz, munduko arrozen eta Cadizeko gauak izan genituen; aurretik, berriz, Jamaikako sukaldaritzaz ezagutzeko aukera izan da eta kultura eta gastronomia anitzak ezagutarazten jarraitzeko asmoa dugu”. Martxoaren 14an Estatu Batuetako hegoaldean jatorria duen Soul janaria izango da protagonista eta ondoren soul eta funk kontzertua Mike Hammer & Taxi Drivers taldearekin. Apirilaren 12an Napoka Iria bikotearen kontzertua eta animazio saioa izango da, italiar aperitiboarekin. Maiatzean eta ekainean afrikar eta reggae musikak izango dira, hurrenez hurren. “Ez dugu geldirik egon nahi, orain da eta gauzak egiteko garaia”.

2010eko HILABETE MOREAREN EGITARAUA

MARTXOAK 4:

19:00etan Hitzaldia: Gure gorputza, gure erabakia. Abortatzeko eskubidea. Hitzalaria: Begoña Zabala (Emakume internazionalistak), abokatua/abogada, Non: Alondegian // Hizkuntza: Gaztelaniaz

MARTXOAK 6:

22:00etan Zine Foruma: "TODAS LAS MUJERES" // Non: Aita Mari zineman

MARTXOAK 7:

18:30ean "DIRUAAREN SEXU EZKUTUA" erakusketaren inaugurazioa, Hauralde eta Maien Etxeak antolatuta, Alondegian. Erakusketa ikusgai egongo da martxoaren 7tik 17ra, egunero, 18:00-20:00. Erakusketaren gaia: 1800. urteik gaur egun arte, Euskal Herrako eta hainbat herrialdeetako emakumeek erabilitako diru-zorroren atzera begirakoa.

18:30 - 19:30 Toti Martinez de Lezearen hitzaldia: emakumeak, ekonomia eta ahalduztea ("Mareas" izenburuko liburuan oinarrituta). Hizkuntza: gaztelaniaz.

19:30ean LARRE MOTZEAN bidearen emanaldia, non Zumaia hainbat emakume protagonista diren, Alondegian. Hizkuntza: euskaraz. Egunero ikusgai egongo da erakusketarekin batera.

22:00 "IZAN BEDI EMAKUMEA" antzerkia // Non: Aita Mari zineman. Sarrerak salgai Turismo bulegoan.

MARTXOAK 8: EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

19:00etan KONTZENTRAZIOA magnoliopean, Zumaia Berdintasun Foroak eta mugimendu feministak deituta.

19:15ean EMAKUMEON BERTSO-TRIKIPOTEOA, Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolanekin, Eribera kalean zehar.

MARTXOAK 12:

17:30ean IPUIN KONTAKETA: "baziren behin... neska abenturazaleak eta mutil ameslariak", Kontukantoiaren eskutik // Tokia: haur liburutegian.

MARTXOAK 13:

19:00etan Hitzaldi-tailerra: ECONOMIA FEMINISTA, O ESTO NO ES COMO NOS LO CUENTAN. Dinamizatzailea: Aurora Ituriz, ekonomista y feminista // Non: Alondegian. Hizkuntza: elebidun. Gaia: Tailer honetan, postulu zientifikoak desmitifikatuko ditugu, non helburu duten giza ekintza kritikoa urrutzea, eta emakumeok egiten dugun lana ez ikusaraztea. Ekonomiak zenikusia du gure beharrak asetzeko egiten dugunarekin, eta, beraz, hasi beharko genuke definitzen zein diren gure benetako beharrak, eta geure buruari galdetu beharko genioke ea ekonomia sistemak asetzen dituen gure beharrak.

Kartel lehisketaren irabazlea: Maite Gonzalez Lugo

Emakumeen Nazioarteko Eguna

Zumaia 2014

Martxoak 8

Zumaiako Udala
BERDINTASUN
GAZTETIA
DUELA
DUELA

2014ko
BERDINTASUN EGUNA



LEIALTASUN TXARTELA 2014

	EGUNAK	HILEKO ESLOGAN-A	ESKAINNTZA	AZALPENA
URTARRILA	7tik bukatu arte	Puntuak trukatzea	Puntuak	Lortutako puntuak trukatzea
OTSAILA	1-28	Sasoian jartzeko	Saria	10 euroko txartelak, botika, parabolika, edergintza zentro, belardenda, fisioterapia, optika eta ile-apaindegietan trukatzeko
MARTXOA	1-31	Pintxoak pintxo	Saria	Kontsumizioa tabernetan. Balioa 3 €
APIRILA	1-30	Udaberria Zumaian	Deskontua	5, 10, 20 eta 50 euroko erosketak txartela.
MAIATZA	1-31	Udaberria Zumaia	Deskontua	5, 10, 20 eta 50 euroko erosketak txartela.
EKAINA	1-30	Merkataritzaren astea	Saria	%5eko deskontu finkoa ekaineko larunbat batean.
UZTAILA	1-30	Badator uda	Deskontua	2 lagunentzako bazkaria/afaria. Balioa 60 €.
ABUZTUA	15-31	Eskolara Itzultzea	Saria	Eskolara itzultzea. 5, 10, 20, eta 50 euroko erosketak txartela.
IRAILA	1-30	Eskolara Itzultzea	Saria	Eskolara itzultzea. 5, 10, 20, eta 50 euroko erosketak txartela.
URRIA	1-15	Eskolara Itzultzea	Saria	Eskolara itzultzea. 5, 10, 20, eta 50 euroko erosketak txartela.
AZAROA	1-30	Bezeroaren hilabetea	Deskontua	5, 10, 20, eta 50 euroko erosketak txartela.
URTE OSOA			Puntuak	20 €-ko erosketak/kontsumoa= puntu 1. 300 puntu = 10 €-ko txakea

MARTXOA

DEIALDIAK

Martxoak 10,24

Adineko ezinduak zaintzen dituzten familientzat Laguntza Taldea

Martxoak 19-21

MENDI ASTEA: Mendiko proiektzioak Oxfod aretoan

Martxoak 21-23

Musika egitaraua: METAL TOPAKETAK

ERAKUSKETAK

OXFORD aretoan

Martxoaren 5etik 16ra

MALEN ETXEA elkartearen erakusketa: "Diruaren sexu ezkutua"

Martxoaren 26tik

apirilaren 13ra: LESO

Spotters taldearen argazki bilduma.

MARTXOA

1, larunbata

Egunean zehar, Inauteri egitaraua: musika, mozorro lehiaketak,...

3, astelehena

15:00etan eta 17:30ean Maria eta Jose ikastetxean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots "Bizipoza"

18:00etatik 20:00etara LH4-6bitarteko haurrentzat inauteri festa Ludotekan

6, osteguna

22:00etan Aita Marin, zine forum: "Todas las mujeres"

7, ostirala

22:00etan Aita Marin, antzerkia: KOLDARRAK taldearen "Izan bedi emakumea"

12, asteazkena

Haur Liburutegian Kontukantorekin ipuin kontaketa, 17:30ean

14, ostirala

19:30ean Foronda kultur etxean, GUNE Elkartearen otoitz-meditazio saioa

20, osteguna

22:00etan Aita Marin, zine forum: "Solo Dios perdona"

21, ostirala

22:00etan Aita Mari

aretoan, antzerkia:

METROKOADROKA taldearen "Zertarako hegoak"

27, osteguna

22:00etan Aita Marin, LABURBIRA film laburren XI. zirkuitua

28, ostirala

19:30ean Foronda kultur etxean, GUNE Elkartearen solasaldia: "Biblia judeo-cristiana y espiritualidad ecológica".

APRILA

4, ostirala

22:00etan Aita Marin, antzerkia: RAMON AGIRRE eta INAXIO TOLOSA "Kokakola eta barea"

13, igandea

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia: Nalúa "Fakirra"



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina

• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

Xabier **AZKUE IBARBIA**

Joxean gogoan

Doinua: "Gogoratuko zara"

**1.**

Ilusioz etorri
zinen Zumaiara
hasieratik bultza
zenuen euskara
izoztu zaigunean
bihotzen taupada
geldi xamar geratu
gara beharbada
*izoztu zaigunean
bihotzen taupada*
zure arimarekin
mugituko gara

2.

Lagun bikaina eta
laguntzaile fina
euskararen aldeko
lan asko egina
sartua zaigunean
barruraino mina
uste dugu zarela
ordezkaezina
*sartua zaigunean
barruraino mina*
gure geroa ez da
izango berdina

3.

Alde egin duzunean
neguko hotzean
are hotzagoa da
zutaz oroitzean
zure falta sentitzen
dugun bakoitzean
etorriko bazina
berriro, Joxean!
*zure falta sentitzen
dugun bakoitzean*
eramango zaitugu
gure bihotzean

ANDER HORMAZURI



“Aukeratu eta Eraman” kanpaina

PHILIPS®



FULL HD

100 Hz

22” 165€

• 22PFL 3088

32” 259€

• 32PFL 3088

24” 199€

• 24PFL 3088

39” 369€

• 39PFL 3088

28” 265€

• 28PFL 3088

40” 379€

• 40PFL 3088



**ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK**

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com

Zumaian bizi

RESIDENCIAL

Ortiz

BIZIGUNEA

 facebook.com/inmoloiola

aukeratu etxebizitzarik egokiena



ETXEBIZITZAK 170.000 €
-tik aurrera



AUKERA

Eta orain,
Zure tamainako
finantziazioa

Sustatzailea:



Eraikitzailea:



Saltzaileak:



info@inmoloiola.com

606 957 532

www.vivirenzumaia.com / www.zumaianbizi.com